

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Azaroaren 26ko 98/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez baimentzen baita Maria Jesús Mansilla Delgadoren behin-behineko izendapena Oiongo Udaleko idazkari lanposturako, 2019ko azaroaren 23tik 28ra (biak barne) eta 2019ko abenduaren 28tik 2020ko urtarrilaren 8ra (biak barne)

Oiongo Udalak jakinarazi dio atal honi behin-behineko izendapen horren beharra duela, adierazitako epean Alfredo Sastre de Abajo udal idazkaria ordezkatzeko.

Hortaz, korporazio horretako funtzionario Maria Jesús Mansilla Delgadoren behin-behineko izendapena proposatzen du.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazioaren eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maria Jesús Mansilla Delgado Oiongo Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, lanpostu horretako eginkizunak bete ditzan titularra ez dagoen bitartean, 2019ko azaroaren 23tik 28ra (biak barne) eta 2019ko abenduaren 28tik 2020ko urtarrilaren 8ra (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bakoitzeko indarrik.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Oiongo Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA